



## Areson eginen dute Haur, Guraso eta Eskolen Topaketa

**ETZI** ▶ Aresoko, Leitzako, Aranoko eta Goizuetako eskola umeak eta gurasoak elkartuko ditu festak

**HELBURUA** ▶ «Denen arteko ezagutza bultzatzea» du xede; aurten zazpigarren edizioa da ▶ 7



HITZA

## Antzinako bizimodua margoetan islaturik

**GAZTELU** ▶ Euskal giroak, gertaerak eta jantziak irudikatzen dituzten lanak jarri ditu ikusgai Edorta Murua artista donostiarrak Ostatuan ▶ 6

### TOLOSA-VILLABONA ▶

## Fran Lasuen eta Eguen Bandaren eta Pirineos Jazz Orchestaren zuzeneko emanaldiak

Lehenek bihar joko dute, Fronton kafetegian; bigarrenak gaur eskainiko dute kontzertu didaktikoa, Gurean ▶ 2,5



Haurrentzako jolasak izango dira bi herrietan. I. GARCIA

### ALKIZA-IRURA ▶

## Kultur hotsak entzungo dira non-nahi

Bihar ekingo diote Kultur Asteari Alkizan eta Iruran ▶ 4

hitza  
argazki  
lehiaketa




eman botoa

#### BOTOA EMATEKO

- ▶ P. elektronikoz: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)
  - ▶ Telefonoz: 943 65 56 95
- Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

Irabazleak, maiatzak 14 igandeko egunkarian

Sari  
nagusia



Bidaia Agentzia  
bidaide

[www.bidaide.gruposercor.com](http://www.bidaide.gruposercor.com)

#### BIDAIA paregabe bat zure neurrira

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Erniobea, 6-behea • 20150 Villabona  
Tel.: 943 692 693  
[bidaide@gruposercom.com](mailto:bidaide@gruposercom.com)

ZOKETA  
APARTAK



PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZaren botila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira





## KULTURA ▶

# Lasuenek 'Denborak' bere azken diskoa aurkeztuko du, bihar

Fronton kafetegian doako kontzertua eskainiko du musikari eibartarrak, Eguen Bandaren laguntzarekin, 23:00etan

NOELIA LATABURU

Askok eta askok Oskorri taldeko partaide bezala ezagutuko dute, bai eta Izukaitz taldean aritu delako ere. Fran Lasuen da bera, eta biharkoan kontzertua eskainiko du Fronton kafetegian. Bertan *Denborak* bere azken diskoaren aurkezpena egingo du, Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat txoko bisitatu ostean.

Lasuenen musika doan entzuteko parada izango dute Frontoneraino joaten direnek, 23:00etatik aurrera. Abeslari, biolin-jolea eta kompositoreak Eguen Bandaren laguntza izango du emanaldian: Alfonso Rodríguez biolin-jolea, Gorka Mardaraz biola-jolea, Urtzi Diez txelo-jolea, Jesus Belmonte gitarrak-jolea, David Nanclares kontrabaxu eta mandolina jolea, Oscar Anodollo bateria-jolea, Ana Somorkutzi korroetan eta Jorge Lasuen saxofoia-rekin.

**Ibilbide luzea musikan**

Hirugarren diskoa du azken honekin bere ibilbidean abeslari eibartarrak. Musika mun-



Fran Lasuen eibartarra. HITZA

duan ibilbide luzea du Oskorri edo Hiru Truku bezalako taldeetan, Ruper Ordorikarekin eta Bixente Martinezekin batera. Abeslariak adieraztera eman duenaren arabera, bere azken disko honetan «egungo musika nola bizitzen duen adierazi nahi izan du». Hala, emaitza, beti ere bere ustez, «biziagoa eta zuhurragoa» izan da. Dago-

eneko Donostian, Madrilen eta Lisboan izan da, eta bihar Tolosan bere estiloa entzuteko aukera eskainiko du euskaldunak. Egilearen esanetan, gainera, diskoko abestiak «entzuteko errazak dira, ondo pentsatutakoak eta egunero-kotasuneko edertasuna bilatzen dutenak». Orokorrean, jera ezberdineko lana burutu du Lasuenek Mafalda Arnauth eta Niño Josele abeslarien kolaborazioekin.

Jazz, folk, pop, Brasilgo eta Kubako joeren eragina, rapa eta balsa dira, besteak beste, Lasuenek uztartzen dituen musika estilok. Horretarako, gainera, bost hizkuntza erabiltzen ditu, euskara, frantsesa, ingelesa, portugesa eta gaztelania. Poesia ere ukitzen du abeslariak, Sarrionandiaren, Ambrosio Atxaren, Edorta Jimenezen, Jon Miranderen, Pello Zabaleteren, David Passinghamen, Pako Aristiren edo Rogelio Santosen bertsoekin. Berak ere konposatzen ditu bertso batzuk. Inoiz entzun duenak ikus-entzulearekiko duen «gertutasuna» azpimarratzen du. Bada, bihar egiaztatzeke unea da, Fronton kafetegian.

## GERONTOLOGIKOA ▶

## Foru Aldundiaren jarrera salatu du Aralarrek, «ez baitu ezer egiteko asmoa»

Tolosan zegoena itxi zuten arren, Aldundiak ez omen du «gerontologiko berririk irekiko»

ERREDAKZIOA

Aralar alderdiak Foru Aldundiak «ez duela inolako asmorik Tolosaldean gerontologiko berririk irekitzeko» salatu du. Hala baieztatu berri dute, «bere batzarkide taldeak eginitako galdera batzuen erantzunen bidez lortutako informazioaren ondorioz». Aralarren

esanetan, «Foru Aldundiak oso argi dauka Tolosaldean ez dela gerontologiko berririk egongo, nahi eta Tolosan zegoena itxi zuten». Hori adierazi zuen, hain zuzen, Gizarte Politiketarako Sailak, Batzar Nagusietan.

Halaber, Aralarrek adierazi du aipatutako erantzun horietan «Tolosaldeak Zerbitzu Sozialen mapan zehaztutako hel-

buruetara iritsiko dela, baina ez da esaten nondik aterako diren sortu beharko lirakeen 73 plaza berriak». Foru Aldundiak Zumarragan, Lazkaon eta Zumaian zentroak irekitzea erabaki du, baina «ez du ezer aipatu Tolosaldean egingo duenaren inguruan».

**«Tolosarrei adarra jotzen»**

Hau guztia dela eta, Aralarrek «oso larritzat» jo du Tolosaldeko zerbitzu sozialak «jaitxi izana, eta gai horretan Udalak erakutsi duen jarrera pasiboa, batez ere, alkatearen aldetik». Aralarren ustez, «Diputazioaren gobernuua, EAJK eta EAK osatzen dutena, jarraitzen du gai honekin tolosarrei adarra jotzen».

## KULTURA ▶

## Zinema eskaintza zabaldu du Udalak, doan

Kultur Etxeko aretoan garatuko dira zine emanaldiak, astebururo

N. LATABURU

Tolosako Udalak *Maiatza zinema* antolatu du, astebururo, Kultur Etxeko aretoan. Hala, doan izango diren emanaldiak eskainiko dituzte, adin guztietako ikus-entzuleei zuzenduta. Etzi ere bi filma izango dira aukeran; lehena, Joel Schumacher zuzendariaren *El Cliente* izango da, 17:00etatik aurrera, gazteentzat bereziki. Eta 19:30ean, Wolfgang Petersen-en *En la línea de fuego* akzio filma eskainiko dute, bereziki helduentzat izango delarik.

Eta, igandean, beste bi filma izango dituzte herritarrek aukeran. Lehen saioan, 17:00etan, *Granujas a todo ritmo* izenekoa emango dute, eta bigarrenean, berriaz, *Todos dicen I Love you* musika eskainiko dute, 19:30etik aurrera.

## GIZARTEA ▶

## Kirikiño Egunean izena emateko epea zabaldu dute

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, ikasturte amaierarekin batera, Kirikiño Eguna ospatuko du Kirikiño aisialdi taldeak. Hil honen 21ean egingo dute txangoa, 09:00etan, Tolosako tren geltokitik abiatu eta Komizar parkera joango direlarik (Amasa). Handik oinez joango dira Uzturre inguratuz, eta iritsi bezain laster eukaristia egingo dute. Bazkaldu ostean, eta 19:00ak bitartean, askotariko ekitaldiak antolatuko dituzte. Eguraldi txarra eginez gero, Amasako pilotalekura joango direla eman dute jakitera aisialdi taldeko begiraleek.

Bertan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute datorren asteartea baino lehen.

## KULTURA ▶

## Zine-klubaren saio berri bat, gaur Kultur Etxean

Gaur, 21:30etik aurrera, Kultur Etxeko aretoan Goran Paskaljevic zuzendariaren *Sueño de una noche de invierno* filma izango da ikusgai. Filmak Donostiako Katoliko Elkarte epailearen saria eta sari berezia jaso zituen, besteak beste, 2004. urtean.

## HEZKUNTZA ▶

## Hiru ikastaro berri antolatu dituzte Tolosaldea LHn

Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak adierazi duenez, maiatzaren 15ean, astelehenarekin, *Kalitate erremintak*, *Erregulazio elementuak* eta *CIM Celula flexiblea* ikastaroak hasiko dituzte institutuan bertan. Diru laguntza Hobetuz eta Europako Fondo Sozialak ematen du.

## TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134  
▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autobus.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

**SASKIBALOIA ▶**


Tolosa Aralar saskibaloia taldeko jokalaririk, artxiboko irudian. HITZA

# Tolosa Aralarrek bosgarren postuan bukatu du denboraldia

Azken partidan, hirugarren zen Gernikari 77-55 irabazi zion

**ESTI EZEIZA**

Bosgarren postuan bukatu du denboraldia Tolosa Aralar senior mailako saskibaloia taldeak. Azken lehian, hirugarren postuan zen Gernika KESB-ri 77-55 irabazi zion. Modu oso onean eman dio amaiera, beraz, denboraldiari.

Ezer jokoan ez zen norgehiagoka batean, aurkariak baino egoera fisiko azkoz ere hobea erakutsi zuen, eta horren lekuko izan ziren bigarren eta laugarren laurdenetako partzialak. Joko hau ikusirik, Kaiet, Iñaki eta Jimmy entrenatzaileen bajak ez ziren batere nabaritu.

Partida hasiera motela izan zen, agian entrenatzaile-lehendakariak taldea ongi ezagutzen ez zuelako — «horretarako, gutxienez, partidatara agertzea komenigarria izaten baita», diote taldekoek—. Hala ere, hasierako indar hauek beharrela desagertu ziren kanpotarengan. Lehen laurdenaren amaierara bost puntuko desabaitzarekin iritsi arren, bigarrenean erabakita geratu zen norgehiagoka, partziala 26-8koa baitzen. Atsedendititik bueltan, indarberriturik agertu ziren gernikarrak, baina berriro indarrak ahitzen hasi zirenean, gauzak bere lekuan utzi zituzten tolosarrek. Hirugarren laurdena bi puntugatik galdu arren (151-17), azkenean erraz gailendu ziren (23-12).

**SAILKAPENA ▶**

1. Jorge Fdz. Ceramicas	27-3
2. Ibaizabal Bizkarra	22-8
3. Gernika KESB	19-11
4. Santurtzi	17-13
5. Tolosa Aralar	17-13
6. Salleko	16-14
7. Ventanas Leon	16-14
8. UPV Alava	15-15
9. Sugarrak de Audio	15-15
10. Jarrileros	14-16
11. Leihoak Zarautz KE	13-17
12. La Salle	13-17
13. Leioa Artea	11-19
14. Asti Leku Tsunami	11-19
15. Patronato SD	10-20
16. Hotel Ciudad de Haro	4-26

Amaierako emaitza esanguratsua izan zen, 77-55, sailkapenean hirugarren postuan amaitu duen talde baten aurrean. Honi esker, bosgarren amaitu dute denboraldia, laugarren den Santurtzirekin berdinduta, baina *basketaverage*-a puntu batengatik aurka dute. «Denboraldi hasierako helburua maila mantentzea zela kontuan hartuta, bikaintzat jo daiteke aurten egindakoa», diote taldeko ordezkariak.

Datorren denboraldian pentsatzen hasteko garaia iritsi zaie orain: aurpegi berriak, mailaren egiturarekin zer gertatuko ote den... «Baina egin beharrekoa eginda dago, eta orain gozatzea besterik ez da geratzen. Irailtik aurrera ikusiko da zer gertatzen den».

**TAK**eko gainontzeko taldeak Beheko taldeei dagokienez, kadeteek galdu egin zuten Zarautzen, 69-67. Infantiletan, berriz, nagusiek erraz irabazi zuten Ordizian, eta gazteek etxean galdu zuten, Arizmendi-Mugarriren aurka.

**TAKeko gainontzeko taldeak**

Beheko taldeei dagokienez, kadeteek galdu egin zuten Zarautzen, 69-67. Infantiletan, berriz, nagusiek erraz irabazi zuten Ordizian, eta gazteek etxean galdu zuten, Arizmendi-Mugarriren aurka.

**ARETO FUTBOLA ▶**

## Gogor lehiatuta, 3-5 irabazi du Hegoalde

Liga amaitzeko hiru partida falta direla, sailkapeneko zazpigarren postuan daude



Hegoalde, Mostoles-en aurkako partida batean. HITZA

**E. EZEIZA**

Partida zail baten ondoren, 3-5 irabazi zuen Hegoalde Aadae Valladolid-en aurka, joan den asteburuan. Isa Barrio jokariaren esanetan, «norgehiagoka orekatua» izan zen, lehenengo aurkariak aurreratu ziren, baina bigarren zatian eskualdekoak nagusitu ziren.

Partida hasi eta gutxira, Hegoaldekoak aurreratu ziren Laurak sartutako golarekin. Baina minutu gutxira gauzak asko aldatu ziren, eta Valladolidekoek aurre hartu zuten, markagailuak 2-1 erakusten zuela. Atsedendialdiaren ondoren, gauzak berdin jarraituko zutela bazirudien ere, 30. minutuan, eta ondorengo laurdenetan, jarraian, lau gol sartu zituzten Tolosakoek. Hau ikusita, azken minutuetan aurkariak atezaina jokoan jarri zuten, atezaintzatik ateraz.

Saio honen ondoren, hiru partida besterik ez zaizkio geratzen Hegoalderi Liga amaitzeko. Asteburu honetan lortutako hiru puntuei esker, sailkapeneko zazpigarren postuan jarri dira. Eta orain artekoa kontutan hartuta, jardunaldia seigarren edo bosgarren postuan amaitu ahal izango dute. Ohorezko maila-

**VALLADOLID ▶ 3**
**HEGOALDE ▶ 5**

**Aadae Valladolid.** Eva; Laura; Rosa Angela; Leticia; Cristina.

**Hegoalde.** Nerea Arana; Isa Barrio; Itziar Aldezabal; Miriam Arana; Virginia Delgado.

**Golak.** 1-0: Laurak; 1-1: Isak; 2-1: Rosa Angelak; 2-2: Itziarrek; 2-2: Virginiak; 2-4: Edurnek; 2-5: Virginiak; 3-5: Dinhak.

ko aurtengo denboraldia nahiko motel hasi zuten, baina aurrera joan ahala postuak igoz eta indarrak hartzen joan dira. Maite Argote zuzendari-zakoa kideak azaldu duenez, «denboraldi honetan jende berri asko sartu zen taldean, eta denbora behar zen hauen artean kohesionatzeko». «Oso garrantzitsua da guretzat postu honean geratzea, babesleak behar baititugu hurrengo urterako ere», gaineratu du.

Datorren partida igande honetan Usabalgo kiroldegian jokatuko dute Hegoaldekoek. Aurkari UCAM Murcia E.S.E taldea izango dute. Hauek sailkapeneko hirugarren postuan daude, eta 28 puntuko alde ateratzen diote Tolosako taldeari.

**iragarki laburrak ▶**
**LANPOSTUAK**

**Gidariak.** Udaletan eta Eusko Jaurritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lanpostu libreak: Eusko Jaurritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

**Mantenimendu Ofiziala.** Ospital, egoitza eta udalberako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.  
**Osakidetzak.** Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Langileak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.  
**Aireportuak.** Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

## ANOETA ▶

## Festetan lan egiteko deialdiak Udalaren partetik

Anoetako Udalak bi deialdi egin ditu ekaineko herri festetarako. Alde batetik, buruhandi eta erraldoiekin ateratzeko prest dagoen jendea behar dute. Jendea hautatzeko garaian, lehentasuna emango diete anoetarrei eta esperientzia baloratuko da. Bestalde, herriko alguazilari laguntzeko jendea ere behar dute. Zeregin desberdinak egingo ditu: kioskoak montatu eta desmontatu, aulkiak mugitu, kaleak garbitu... Ekainaren 10etik 18ra bitartean izango da lana. Bi deialdiarako izen-ematea hilaren 26a arte egin daiteke, udaletxean bertan, 09:00etatik 13:00etara.

## ZIZURKIL ▶

## Munduan Jolasean jolasgunea, bihar

Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, bihar ekitaldi berezi bat egingo dute. *Irudimena* da aurtengo leloa, eta Munduan Jolasean jolasgunea bete-betean egiten du bat hitzarekin. Atxulondo kultur etxean elkartzeko dira egun guztian zehar Zizurkilgo hiru ikastetxeetako 100 haur inguru. Jolasgunea bost gunez osaturik dago, eta horietako bakoitza kontinente bat izango da. Afrikan, Asian, Amerikan, Europan eta Ozeanian hango kulturetako jolasak eta tailerrak landuko dituzte. Haurrak elkarrekin jolastuz elkarrekin bizitzeko gonbita luzatu nahi diete antolatzaileek.

## OREXA ▶

## Tutorearen bisita izango dute gaur KZgunean

Orexako KZgunean tutorearen bisita izango dute gaur. 16:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegian egongo da udaletxeko ganberan.

**I. hitza**  
marrazki lehiaketara  
aurkeztu zinenen marrazkiak Tolosako HITZaren egoitzan daude, Araba etorbideko 5.aren atzealdean. Jaso nahi dituzuenok pasatu zaitezke bertatik 09:00atik 14:00etara.

## ALKIZA-IRURA ▶ KULTUR ASTEA

## Kultur ekitaldi ugari eta interesgarriak bi herrietan

Bihar hasiko dira ekitaldiak; herri bazkariak eta afariak izango dute beren tartea

## ERREDAKZIOA

Kulturak Irura eta Alkiza hartuko ditu datozen egunotan. Bi herrietan bihar hasiko diren kultur asteetarako ekitaldi ugari eta interesgarriak antolatuko dituzte. Ez dira faltako ere herritarrek mahai inguruan biltzeko aukerak, herri bazkari eta afariak ere egingo dituztelako.

## ALKIZA

## BIHAR

**17:30.** *1, 2, 3. Inaxito* bertso antzerkia, Kultur Etxean.

**18:30.** Egur mota ezberdinen erakusketaren inaugurazioa. Erakusketa hau zabalik egongo da egun guztietan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Herriko emakumeek eginiko eskulanen erakusketa ere zabalik egongo da leku, egun eta ordu beretan.

**20:00.** Mahai-ingurua. Gaia: su-etena. Hizlariak: Rafa Diez eta Joseba Egibar. Moderatzailea: Lorea Agirre.

## ETZI

**09:30.** Mendi ibilaldia: Alkiza - Itzuregi - Goena - Urruzola - Alkiza. Ondoren, opari zozketa.

**17:00.** Haur jolasak. Ondoren, txokolatada.

**22:00.** *Aupa Etxebeste!* filma, Kultur Etxean.

## IGANDEA, HILAK 14

**11:00.** Pilota partidien hasiera. Ondoren, *Txokoketa* herrikoia izango da. Goizean zehar Erniopeko V. Ibilaldiko mendizaleak herrian izango dituzte, eguerdira arte.

**13:00.** Kantujira, Amixuri abesbatzak antolatuta, herriko tabernetan.

**14:30.** Bazkari herrikoia Otsamendi jatetxean. Bihar arte eman daiteke izena, jatetxean bertan.

**18:00.** Ikaztegiatoko dantza taldearen saioa, plazan. Ondoren, Toka txapelketa.

## ASTELEHENA, HILAK 15

**19:00.** San Isidro eguneko meza nagusia.

**20:00.** EHNEko kide Aitor Aranburuk hitzaldia eskainiko du baserriaren egoera gaitzat hartuta.

**21:00.** Herri afaria Udalak antolatuta, Ostatu jatetxean. Bertara etxe bakoitzetik bi pertso-



*Aupa Etxebeste!* filma eskainiko dute Alkizan etzi gauean. HITZA

na joan daitezke. Beste norbaiten joan nahi izango balu, afari osoa ordaindu beharko luke. Izena emateko epea bihar bukatuko da Ostatu jatetxean bertan.

## IRURA

Aste guztian erakusketa egingo dute Apaiz-etxeko Ikastolako gela batean. Ziri-enkaje, pintura, eskulanak, egur-taila, fimo eta larru-lantze ikastaroen egindako lanak erakutsiko dituzte.

## BIHAR

**18:00.** Donapaleu herriko Musika Eskolako kideen bisita Irurako Loatzo Musika Eskolako kideei.

**22:30.** Taberna eta elkartearen arteko Mus Txapelketa: final-laurdenak Aizpurua jatetxean.

## ETZI

**16:30.** Argazki lehiaketa eta ipuin edo idazlanen lehiaketa Kulturunean, Irurako Agenda 21 programaren barruan.

## IGANDEA, HILAK 14

Herri Urrats Iparraldeko Ikastolen aldeko jaia Senperen.

## ASTELEHENA, HILAK 15

**19:30.** Irurako dantzarien saioa, plazan.

**20:00.** Isidro Deuna baserritarren zaindariaren omenezko meza.

**21:00.** Herriko baserritarren zat afaria.

## ASTEARTEA, HILAK 16

**17:30.** Jubilatuen jokuak; bote eta toka plazan eta mahai-jokoa Zaharren Biltokian.

**18:00.** Ipuin-kontakteta liburutegiko haur-txokoa, 3 urtetik 11 urte bitarteko haurrentzat.

## ASTEAZKENA, HILAK 17

**18:00.** *Mimarte* antzerki eta mimika ikuskizuna Peter Roberts aktorearen eskutik, 12 urtetik gorako gaztetxoentzat.

**19:30.** Irurako Gazte-guneeko kideen *Gure Koadrilan* antzerki-emanaldia, Ikastolako Ekitaldi Aretoan.

## OSTEGUNA, HILAK 18

**16:15.** Jubilatuen ibilaldi neurtua plazatik aterata herriko kaletan zehar.

**17:30.** Hitzaldia Zaharren Biltokian. *Jubilatu ondoren laguntzeko lanean* gaiaren inguruan, Nagusilan Elkartearen ki-

deen ahotik. Ondoren, jokoen sarien banaketa eta lunch-a.

## OSTIRALA, HILAK 19

**18:00.** Xare eta Pala Txapelketako finalak, Trinketearen.

**20:00.** Afari herrikoia Zaharretxe Tabernan. **21:00.** Afari herrikoia Zaharretxe Tabernan (15 euro).

**22:30.** Taberna eta Elkartearen arteko Mus Txapelketaren finala eta sari banaketa.

**22:30.** Erromeria plazan, Irrintzi Taldearen eskutik.

## LARUNBATA, HILAK 20

**Irurako Ikastolaren Eguna**  
**11:00.** Ikastolako kideen (gurasoak, ikasleak eta irakasleak) kalejira herrian zehar.

**12:00.** Ikasleen emanaldia plazan (haurrak).

**12:30.** Haur eta helduen arteko jolasak.

**14:00.** Bazkaria plazan (helduek 15 euro ordaindu behar dituzte, eta haurrek 6 euro).

**17:00.** Ikasleen emanaldia plazan (gaztetxoak).

**17:30.** Erromeria plazan, Irrintzi taldearen eskutik.

**22:30.** *Erreleboa* antzerki emanaldia, Trinketearen.



PILOTA ▶

## Txikien eta gaztetxoek emaitzak, eta datozenak

HITZA Pilota Txapelketan aurrera darraite pilotariak frontoietan kalitatea eskaintzen

N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketak aurrera darrai, eta aurreko astean ere hainbat partida jokatu zituzten eskualdeko pilotariak. Infantiletan, Loidi-Maiza I.ak 18-1 irabazi zieten Zabal-Zubeldia alegitarrei, eta Manterola-Urdangarin 3-18 galdu zuten Leitzako Juanena-Olanoren aurka.

Alebinetan, Girardo-Imanolak 16-8 hartu zituzten mendean Alegiako Artola-Murua. Arandia-Arrospide alegitarrek 11 tantorekin galdu zuten Ugalde-Zapirainen aurka. Gil-Iparragirre leitzarrek Amiano-Mugikaren aurka irabazi zuten, 16-5. Azken partidatan, Arozena-Zugarramurdik 4-16 galdu zuten Aurrera-Saiazeko Matxinea-Aranalderekin.

Benjamin mailan, Manterola-Petxarromanek 16, Goikoe-txea-Mendizabal alegitarrek 6 amaitu zen partida. Altxoko Larrea-Zabalaren eta Leitzako Gil eta Marizkurrenaren artekoan 16-10eko emaitza izan

zen. Eta azken partidatan, Anoetako Talavera-Urkolak 3-16 galdu zuten Aurrera-Saiazeko Salbarredi-Garziarenarekin. Kadeteetan, Berastegiko Zubiri eta Otegi aritu ziren, 5-18ko emaitzarekin.

### Partida gehiago

Gaur, Beotibarren, jubilenen mailan, 19:30ean hasita, Iratzusta-Mugika eta Idoate-Soroa naparrak lehenengoan, eta Eskudero-Leunda —azkena amezketarra— Iturriotz-Telletearen aurka ariko dira.

Bihar, infantiletan, Villabonako Nazabal eta Karrera izango dira Aizpuru-Galarragaren aurka, 4. partidatan. Albiturren, 2. partidatan, Izagirre-Azkaratek Galarraga-Otaegi alebinekin jokatuko dute. 4. partidatan, Villabonako Otaño-Urkola eta Ibarzabal-Tolosa Anoetakoak lehiatuko dira.

Etzi, benjaminetan, Alegian, 17:00etatik aurrera, Villabonako Alkorta-Maiz eta Anoetako Peña-Iturbe ariko dira.

VILLABONA ▶ MUSIKA

## Pirineos orkestraren kontzertu didaktikoa

‘Tam Tametik Tom Tomera’ saioa egingo dute, gaur, Gurean

NEREA URBIZU

Tam Tametik Tom Tomera kontzertu didaktikoa zeharkako kultura-hezkuntza programa da gaur ikusi ahal izango dena Gurea aretoan. Hau guztia Pirineos Jazz Orchestra taldeak eskainiko die ikus-entzuleei.

Antzele musikariitsu baten bitartez, musika-mota horren bilakaera deskribatzen dute, esklabu amerikarrak zeudetik gaur egun arte. Kontzertuak jazz musikaren jatorrian aurkitzen diren elementu desberdinak batzen ditu unitate batean: historia, antropologia, geografia, kultura eta arrazen elkar-tzea, besteak beste.



Pirineos jazz orkestrako partaideetako batzuk. HITZA

Jazz munduan ezagunak

Villabonan Gurea aretoan ikusi ahal izango dena interesgarria izango da, jazz munduan egun maila gorenean daudenetako taldea ikusteko aukera baitago, Kutxa Kultur Ekintzaren eskutik.

Europako mugaz gaindiko lehenengo orkestra da honakoa. 2003an sortu zen, Akitania eta Euskal Herriko musikaririk onenak bilduz. Talde honen ikuspegitik, «jazz musikak ez du mugarik eta munduko ahots eta kulturen topagunea da».

Beraz, gaur, 18:00etan, jazzak sortzen dituen akordeak entzuteko aukera izango da.

## Euskaraz irakurtzen dituzu herriko berriak

Zergatik ez

Euskal Herrikoak eta mundukoak?



kazeta eredu berria

Zure kioskoan



Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

ABALTZISKETA ▶ HEZKUNTZA



## Ipuina eta musika jorratuz, ikasleen aditasuna eskuraturik

N. Urbizu ▶ Isabel Nillet ipuin kontalaria izan berri da Abaltzisketako eskolan. 2 eta 8 urte bitarteko haurrei *Duba obabada* ipuin musikala eskaini zien, eta ikasleak oso gustura egon ziren entzundako guztiarekin. Saiok ordubete iraun bazuen ere, txikienek ere erraz jasan zuten. Euskal idazleen elkarrekin eskaintzen duen ekintza da, eta Abaltzisketako eskolari eskaera eman zitzaion. HITZA

GAZTELU ▶ ERAKUSKETA

# Antzinako bizimodua margoetan

Hilaren amaiera bitarte ikusgai dago  
Edorta Muruaren erakusketa Ostatuan

IÑIGO TERRADILLOS

Hil honen amaierara arte Gazteluko Ostatuan, ostiraletik igandera, ikusgai izango dira Edorta Muruaren margolanak. Donostiar margolari eta eskultoreak euskal giroak eta gertaerak irudikatzen dituen bere lana aukeratu du Ostatuan jarzeteke.

Bi atalez osatua dago erakusketa; batetik, Arrue anaien erreproduzioak ageri dira. Erreproduzio hauetan, garai bateko euskal bizimodua, ohiturak, erlazioak, pasadizoak... ikusi ahal dira. Bigarren atala, berriz, Erdi Aroko euskal jantziek osatzen dute. Euskal Herri osoko janzkera mota desberdinak ageri dira; hala, koadroak ikusiz, Bizkaian, Gipuzkoan, edo Zuberoan, esaterako, antzerako arropen jantzen zirela baina desberdintasunak bazituztela nabar-

mentzen da. Janzkerak, kalean erabiltzen zirenak, dantzariak, gudariak... irudikatzen ditu margolariak. Hala, koadro bakoitzean azaltzen da jantzia non erabiltzen zen eta zein lekutan.

Halaber, Erdi Aroko jantziarekin eta pertsoniarekin lotura topatuz, koadro batzuk bertsoekin lagundu ditu Muruak; Manuel Lasarte leitzarraren pasarte hau, adibidez: «Dama bat agertu zait, ni maite nagona, olakuak alaitzen du triste dagona; atzo nintzen berari begira egona, ura zen aingerutxo polita zegona». Edota Orixe orexarraren beste hau: «Lore baratzan eder arrosa gorria; gari meta gainean eder da txoria; bil dezake eraztunak gaur zure gerria».

Koadroak akuarelaz eginikoak dira, eta Arrue anaien erreproduzioetarako Amate pater mexikarra erabili du.



**Arrue anaien erreproduzioak.** Garai bateko euskaldunen bizimoldeak, gertaerak, giroa, tradizioak... irudikatzen dituzten koadroek osatzen dute erakusketaren atal bat. HITZA



**Euskal jantziak.** Bigarren atalean, Erdi Aroko euskaldunen jantziak ageri dira. Kalekoak, gudariak, dantzariak nola jantzen ziren ikusteko aukera dago. Koadro batzuk bertsoekin ere lagundu ditu. HITZA

BERROBI ▶ XVI. KULTUR ASTEA

## Ikus-entzunezkoa Peruri buruz eta ipuin kontaketa saioa gaurko egitarauan

Sukaldaritza erakustaldian herritar ugari hartu dute parte

iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Gidaria.** Tolosako garraio enpresa batek gidaria behar du C gidabaimenarekin. Eskarmentua garraio nazionallean eta nazioartekoan. 629 71 48 31.

**SALGAI**

**Autoa.** Kadett. 1.8, 115 zaldi salgai. Egoera onean eta merke. Interesatuak deitu 675 70 53 58 (Delia) telefono zenbakira.  
**Autoa.** Renault Kangoo RXE DTI. 2000koa. 88.000 kilometro Estrak. Interesatuak deitu 943 69 71 94 telefono zenbakira.

I. TERRADILLOS

Berrobiko XVI. Kultur Asteak aurrera darrai, eta larunbata bitarte egitarau oparoaz gozatzeko aukera izango dute bertako herritarrek. Gaurkoan, esaterako, 17:30ean, Idoia Sanchezek Galtzaundiren eskutik

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** «Zer iruditzen zaizu Voith-Gorostidi etxebizitza tasatuetako zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzak?». Sartu eta eman zure iritzia! ▶

ipuin kontaketa saioa eskainiko du; eta 21:00etan, Etxolan, Ainhoa Arregik ikus-entzunezkoa eskainiko du berak Peruko Cuzco herrian parte hartu duen *Haur eta gazteekin lankidetzan* programari buruz.

Atzo eta herenegun, bestalde, sukaldaritza erakustaldia egin zuten Bide Ona elkartearen Felix Belaunzarán eta Kontxi Dorronsoro sukaldariarekin, eta herritar ugari hartu zuten parte. Beira gainerreak, bakailao kauserak eta itsas frutekin lagunduriko arrain ragout-a izan ziren, besteak beste, prestatzen ikasi zituzten platerak. Erakustaldiaz gain, herenegun Urreburuko gaztetxoaren pilota partidak izan ziren ikusgai Berrobiko pilotalekuan.



Urreburuko pilotariaren partidak izan ziren ikusgai herenegun. HITZA



Herritar ugari hartu du parte sukaldaritza erakustaldietan. HITZA

## LEITZA ▶ EKONOMIA

## Lankidea gogoan, segurtasun eskaria

Aranburu lan istripuz zendutako lekuan, lore eskaintza eta elkarretaratzea egin dute paper-fabrikako lankide izandakoek

J. ASTIBIA

Atzo urtebete lan istripuz hil zen Mari Jose Aranburu Leitzako langilea gogoan izan zuten bertako paper fabrikaren lankide izandakoek, eta eguerdian ordu beteko elkarretaratzea egin zuten, *Mari Jose gogoan zaitugu* zioen pankarta eskuan, «lan istripuei aurre hartzea beharrezkoa» dela gogora ekarri.

Goizean goiz, Aranbururi heriotza eragin zion istripua gertatu zen lekuan berean, lore eskaintza egin zioten berarekin batera errelebo berean lan egin zuten lankideek; egunera-

ko bere lagunak idatzitako olerki bat ere lantokiko iragarri-oholetan jarri zuten irakurtzeko, elkarretaratzea egin bitartean ere banatu zutelarik.

Hala, lankidearen heriotzaren urteurrena gogora ekarri, langileen batzordeak deituta, elkarretaratzea egin zuten, lekuan eskainitako loreen aurrean. «Segurtasuna eta arriskue-tatik urruntzea» izan zuten eskari nagusia han bildutakoek. Zentzu horretan, langile batzordeko ordezkariak HITZARI adierazi ziotenez, «diaz lan-istripu hau gertatu zen ondore hartan», batzordeak langileen lan baldintzen segurtasuna ber-

matzeko neurri batzuk eskatu zizkion enpresako zuzendari-tzari. Jakitera eman zuten, «orain istripuko moila horretan langileen errelebo aldaketan, 13:40-14:20, karga-deskargak egitea debekatuta dago»; baina «onartuta egon arren, oraindik moila hori lekuz aldatzea falta da; hor erabat jendea ibiltzen baita, ez ordu horietan bakarra».

Elkarretaratzean, errelebo aldaketako garaian izaki, 13:30etik 14:30era egin zuten, parte-hartzaileak aldatuz joan ziren, baina bilkurak iraun zuten bitartean 120 bat lagun egin ziren erabat.



Elkarretaratzeko bi irudi. Goian langile batzordeko kideak pankarta eskuan, eskainitako loreen aurrean. Behean, langile talde bat. J. ASTIBIA

## ARESO ▶ HEZKUNTZA

## Etzi Haur, Guraso eta Eskolen Arteko Topaketa egingen dute

Aurten 7. edizioa izanen du Aresoko, Leitzako, Aranoko eta Goizuetakoak bilduko dituen elkar ezagutza festa honek

JAIONE ASTIBIA

Heldu den larunbatean, Areson egingen dute Haur, Guraso eta Eskolen Arteko Topaketa: goizeko hamaiketataki hasi eta egun guztian zehar, herrian bertako, Leitzako, Aranoko eta Goizuetako eskola ume eta gurasoek elkar ezagutzeko festa egingen dute.

Aurtengorekin 7. edizioa duen topaketa hau hiru herrie-

tako eskoletako guraso elkar-teek (Aranon ez dago eskolarik) eta lau herri horietan lan egiten duen Prebentzio Programak antolatuta dute beste behin, azaldu dutenez «lau herriotako haurrek eta gurasoak jai giroan elkartuz, horien arteko ezagutza bultzatzeko asmoz». Helburu horrekin, «ikasleek egindako lanak erakutsiko dizkiete euren gurasoei eta herriarrei».

Horrela, aurten Areson egingen den topaketa, askotariko ekintzaz osatutakoa da eta egun beteko egitaraua du. Aitatutako herri horietako guraso eta haurren parte-hartze-arekin, 11:00etan ekinen diote egunari, jokoekin hasiko ere. Aresoko herria ezagutzeko kalejira baliatuko dute, Goizuetako *Zagi-dantza*-rekin eta bertako eta Leitzako trikitilariekin; ondoren, dantzari ttikien saioa

## EGITARAUA ▶

**11:00-12:30.** Joko kooperatiboak eta tradizionalak, plazan.  
**12:30-13:30.** Kalejira, herrian barrena. Ondoren, dantzariak, plazan.  
**13:30-15:30.** Bazkaria, Pake Toki elkartearen.  
**15:30-17:00.** Umeen ekitaldiak, eskolan.  
**17:00-17:30.** Txokolate hartzea, Larrea elkartearen.  
**17:30-18:00.** Bukaerako jokoak eta agurra, plazan.

izanen delarik. Arratsaldean, otarteko goxoak jan ondoren, berriz ere umeak izanen dira protagonista. Izan ere, hiru eskoletako ikasleek, antzerkiak, kantuak, dantzak... egunerako prestatu dituzten lanak agertuko dituzte.

Arratsaldekoa egin ondoren, heldu den urtera arte agurtzeko tenorea iritsiko zaie.

## LEITZA ▶

## Atomoog taldearen kontzertua bihar, Torrean

J. ASTIBIA

Bihar gauerditik aurrera Atomoog taldearen kontzertua izanen da Torrean. Sarrera borondatearen truke eskuratu eta hara bilduko direnek Gasteizko taldearen eskaintza berezia entzuteko aukera izanen dute. 1998an sortutako laukoteak hil honetan kaleratu duten lehen diskoa aurkeztuko du. Hiru urtetan landu dute *Zerutik zintzilik* lana: musika tresnen, ahotzen eta makinaren eta efektuen baliabideak erabiliz, elektronika, trip-hop-a, rocka eta musika esperimentalaren nahasketa du proposamen. Saioa ikus-entzunezko osagaiez hornituko dute.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Berrobi.** 17:30ean, Idoia Santxez ipuin kontalaria; 21:00etan, Ainhoa Arregik Peruri buruzko diapositiba emanaldia eskainiko du, Etxolan. XVI. Kultur Astean.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Iñaki Olazabalen eskulturak. Hilaren 27a arte, Aranburu Jauregian.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** Erregimen zibilak. 20:00etan, Kultur Etxean.  
**Villabona.** Bainu termalak. 17:00etan, Biltoki jubilatuta elkartearen.

**MUSIKA**

**Villabona.** Pirineos Jazz Orchestra. 18:00etan, Gurean.

**ZINE-KLUBA**

**Tolosa.** Goran Paskaljevic zuzendariaren *Sueño de una noche de invierno*. 21:30ean, Kultur Etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**

**11:00-14:00.** Tolosaldeko ahotsa: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**21:00-22:00.** Gora Euscadi Txistulari, Matraiako Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
**21:00-23:00.** Gau bero musika saioa.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# San Fermin doinuak

**TOLOSA ▶** Iurreamendiko kaperan grabatu ditu Et Incarnatus orkestrak Iruñeko Mutiko Alaiak peñak eskatuta, eta ekainaren 30ean aurkeztuko dute diskoa



Et Incarnatus orkestra, Miguel Zeberioaren zuzendaritzapean, Iurreamendin diskoa grabatzen. J. SAIZAR



Haizezko musika tresnak ere grabatu dituzte San Fermin jaietako doinu baterako. J. SAIZAR

**JOXEMI SAIZAR**

Tolosako Inauterietako musikarekin Et Incarnatus orkestrak egin zuena gustatu eta sanferminetakoarekin ere gauza bera egitea bururatu zitzaion Iruñeko Mutiko Alaiak peñari bere 75. urtemuga ospatzeko.

Doinu ezagun eta eder horiek orkestrarako moldatu eta pasa den asteburuan grabatu dituzte Tolosako Iurreamendi egoitzako kaperan —lehen ere film eta diskotarako musika grabatzeko askotan erabili dute leku hori—. Bederatzi pieza dira guztira: Astrainen vals-a (*Alegria de San Fermin*), Gaintzaren biribilketa, Navarrierias —Mutiko Alaiaren ereserkia—, Diana festa, San Fermi-  
 nen aurora, *La Dominguera*, *Mocholi*, *Jota* eta *El asombro de Damasco*. Orkestrarako musika moldatzen Inauterietako diskoko berak izan dira: Xabier eta Juantxo Zeberio eta Txema Garzes tolosarrak, Urrejola, Eguiren, Extremiama eta Pastor. Miguel Zeberio tolosarra da orkestraren zuzendaria eta Juanan Ros izan da grabaketaren teknikaria. Pieza baterako oboe, klarinete, fagot eta tronpeta doinuak ere grabatu dituzte, eta oraindik zenbait osagarri ere falta dira, txistuak, dultzainak eta ahotsak, besteak beste.

Musikariak eta peñakoak gustura gelditu dira egindako lanarekin. Besteok ekainaren 30ean Iruñeko Gaiarre antzokian egingo duten aurkezpenkontzertura itxaron beharko dugu musikaz gozatzeko eta jaietarako girotzen hasteko.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Josu Mendizabal Zubeldia  
 (Zaldibia), Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Etxekoan partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa